Gorputza gizakiaren haragitzea da

Lekuko baten tokitik, giza pasioei buruz mintzo da Felipe Juaristi 'Piztutako etxea' poema liburuan

Igor Susaeta Donostia



Musikaz lagunduta aurkeztu zuen Felipe Juaristik liburua, atzo, Donostian. GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

Poesiak orokorrean gorputzari garrantzi handirik ez diola eman iruditzen zaio Felipe Juaristi idazleari (Azkoitia, Gipuzkoa, 1957). Pentsatzen du poesia galdu egin izan dela «*arima* edo *espiritua* deitzen zaion zelaian», eta inportantzia eman izan zaionean soineko erotikoaren lilurarekin jantzita heldu dela. Baina gorputza, ordea, gizakiaren haragitzea da, idazlearen iritziz. «Gizakia dago poesiaren muinean», eta giza pasioek elikatzen dute: «Pozak, tristurak, maitasunak, inbidiak, desesperazioak, izuak, esperantzak...». Horiei buruz mintzo da Juaristi *Piztutako etxea* poesia liburuan (Erein), baina lekuko baten posiziotik; uste baitu poetak inguruan ikusten duena jaso eta islatu behar duela.

Guztira, hogei poema bildu ditu 70 orrialde pasatxotan. Buruan zeukana saiakera gisa ontzea zen hasieran haren intentzioa, baina konturatu zen poesiaren molde «zatikatuak» saiakerak baino gehiago adieraz zezakeela. «Hogei margolan dira, eta horietako bakoitzari hainbat ikuspegitatik begiratu zaio», jakinarazi zuen egileak liburuaren aurkezpenean, atzo, Donostian.

Ahalegindu da, haren esanetan, gorputzaren mugak zehazten, horren ahalmena zedarritzen eta izaera argiztatzen. Gorputzari heldu dio, beraz. «Askotan, poeta galdu egin da errealitatetik kanpo dagoen lurraldean, eta ahantzi egin du poetak errealitate bat sortzen duela beste errealitate baten gainetik». Uste baitu Juaristik *gizakia* eta *gizatasuna* gisako kontzeptuak abandonatu izan direla poesian beste kontzeptu itxuraz handiago eta erakargarriago batzuen aldean: «Dela jainkoa, dela aberria, dela merkatua...». Izan ere, poetak ez du bizi behar soilik bere tripari begira, Juaristiren hitzetan.

Madrilen idatzia

Liburua, ia osorik, Madrilgo La Casa Encendida kulturgunean idatzi du, haren kafetegi «txiki eta beroan». Hala jokatu du, distantzia behar zuelako. «Behar nuen distantzia hori, bai ideiak antolatzeko, bai hitzak aukeratzeko ere». Handik gauzak beste era batera ikusi dituela iruditzen zaio, gauza onak eta txarrak dituela etxetik urrun egoteak. «Ahalegintzen zara oroimena ez desitxuratzen, eta gertatu zaizuna garbiago agertzen da».

Horrek berak hizkuntzarekin beste harreman bat ahalbidetzen duela pentsatzen du. «Kalean ez duzu aditzen... Beraz, ahalegintzen zara hizkuntzari leiala izaten, traizio handirik ez egiten, garbiago azaltzen esan nahi duzuna...». Askeago ere sentitu da han, anonimotasunean. «Hemen geratu izan banintz, bestelakoa litzateke liburua».

Behin bukatuta eta irakurrita, konturatu da orrialdeetan dagoena dela azaldu nahi zuena, eta «esperantza» sentsazio bat transmititzen duela. «Harritzekoa da, sekula ez naizelako izan pertsona oso itxaropentsua... Oso abstraktua da kontzeptua...». Badaki mundua gaizki, «krisian» dagoela, berriro hastea dela irtenbidea eta ez dela itxaropena galdu behar. Horregatik beragatik egin du «pozaren eta alaitasunaren» aldeko apustua. «Beti dago zerbait gogoangarria bizitza justifikatzeko, eta hobe pozik bizitzea triste bizi beharrean. Gizakiak gorputza garelako. Sentimenduak oso lotuta daude gorputzarekin, eta triste edo pozik zauden nabarituko da zure gorputzean». Haren harridurarako, jarrera positiboa dauka liburuak.

> Askotan, poeta galdu egin da errealitatetik kanpo dagoen lurraldean»
>
> «Beti dago zerbait bizitza justifikatzeko; hobe pozik bizitzea triste bizi beharrean»
>
> **FELIPE JUARISTI**
> Idazlea

Liburua aurkezteko, Aldeta bere musika taldeko kideak gonbidatu zituen Juaristik —Juanra Unamuno gitarra eta harmonika jotzailea, Monika Refojos abeslaria eta Txitxo Lopez gitarrista—, eta liburuko hiru poema interpretatu zituzten. Zazpigarren poema liburua du Juaristik, 1984an *Denbora, nostalgia* kaleratu zuenetik —*Aingeruaren angelua* (Luces de Galibo, 2011) zen azkena—. Gainera, bi narrazio liburu eta bost nobela ere kaleratu ditu 30 urteko ibilbidean, prentsan, euskaraz zein gazteleraz, kolaborazioak egiteaz gain.

Internet bidezko saioak emango dizkiete euskal sortzaileek kanpoko ikasleei

Elorriaga, Amuriza eta Borda arituko dira hizlari, besteak beste, Berlin, Boise eta Parisko unibertsitateetan

Erredakzioa

Zuzeneko prestakuntza saioak emango dituzte, baina ez dira bertan izango. Euskal Herriko bederatzi sortzaile eta eragile Internet bidez jarriko dira harremanetan atzerriko bederatzi unibertsitatetako ikasleekin. Zuzenean, baina etxetik. Hori da Euskal Sortzaileak Sarean egitasmoaren funtsa, eta bederatzi pertsona hautatu dituzte. Euskal Herriko bost idazle, unibertsitateko bi aditu eta bertsolari bat: Mark Kurlansky, Eider Rodriguez, Unai Elorriaga, Itxaro Borda, Arantza Urretabizkaia eta Karmele Jaio idazleak, Ivan Igartua eta Iñaki Martinez de Luna irakasleak, eta Miren Amuriza bertsolaria. Eta Parisko, Boiseko, Poznango, Brnoko, Bartzelonako, Leipzigeko, Berlingo, Konstantzako eta Bolognako unibertsitateetako ikasleak izango dituzte hartzaile.

Mintzanet egitasmoarekin batera bultzatu du proiektua Etxepare Euskal Institutuak. Bi helburu aipatu dituzte, hain zuzen ere: «prestakuntza aberastea», batetik, eta «kulturari buruzko ezagutza areagotzea», bestetik. Euskara, hizkuntza politikak, historia, itzulpengintza, literatura, zinema eta bertsolaritza izango dituzte mintzagai saioetan. Ivan Igartuak, adibidez, ostiralean emango die aurrenekoa Parisko Sorbonne Nouvelle unibertsitateko ikasleei. Euskararen historiaz arituko zaie EHUko irakaslea. Zinema eta literaturaz jardungo da Arantxa Urretabizkaia Berlingo unibertsitatekoekin, maiatzean, eta bertsolaritza garaikideaz Amuriza Bolognakoekin, azaroan.

Bihar berrian

IÑIGO ARANBARRI

'Apirila'

nobelaren aurrerapena



berria
mundua·euskarari·emana